



## 2019-2020 KANPAINA INSTITUZIONALAREN OINARRIAK

# erdu te invito

**BETI INORI ESKERRAK  
EXISTIMOS Y VIVIMOS GRACIAS A OTRAS PERSONAS**

'Zeuregan bizi gara eta mugitzen, zeuregan gara eta' Eg 17, 28  
'En Ti vivimos, nos movemos y existimos' Hch 17, 28

caritasbi.org

## IRAILAREN 29KO KANPAINA

Komunitate solidarioa, abegitsua, inklusiboa eta alaia izan nahi dugu. Topagune izan nahi dugu, errealitatea sentiberatasunez hartu, pertsoneri begiratuz eta entzunez, beren egoera pertsonaletatik harago: Baliabide falta, migrazioa, gaixotasuna, bakardadea... Komunitate gisa, bizitza partekatu eta elkartu egin nahi dugu.

Komunitateko kideek egitekoak, proiektuak eta lana partekatzen dituzte, baina ez hori bakarrik. Beren burua jokoan jartzen dute, besteen aurrean arima biluzten dute eta zerbitzua ematen dute. Asmoa ez da boterea erakutsi eta miresmena sortzea; laguntzea eta zerbitzua ematea da, xumetasunez eta umiltasunez. Horrela izanik, gainerako pertsonen ahultasunen aurrean ulerkorragoak dira, beren ahultasun propioez ere jabetzen baitira. Bizilagunen arteko harreman berrien hazia dira, pertsonaren eta komunitatearen arteko elkarriketa berri bat sortzeko hazia.

Bizitza partekatzeko asmo honetan, topaketa dugu oinarri, inor epaitu gabe, etiketarik jarri gabe, gure barneko muga horiek sortzen dizkiguten beldur eta alertak alde batera utzita. Tolerantzia eta besteekiko errespetuan oinarritutako elkarbizitza hau anaitasunezko esperientziaren adierazlea da.

### *BETI INORI ESKERRAK EXISTIMOS Y VIVIMOS GRACIAS A OTRAS PERSONAS*


**'Zeuregan bizi gara eta mugitzen, zeuregan gara eta'** Eg 17, 28

**'En Ti vivimos, nos movemos y existimos'** Hch 17, 28


## KANPAINA INSTITUZIONALA 2019-2020

Azken urteetan, Caritaseko kanpaina instituzionalen asmoak honakoak izan dira:

- **Kristau konpromisoa bizitzeak zer dakarren jakitea**, inguruan daukagun errealitatea deskubritu eta ezagutzeko. Konpromisoaz hitz egin genuen, munduan izateko eta egoteko modu gisa.
- **Pobrezia egoeran bizi diren pertsonen errealitateak ukitu gintzan nahi genuen**: Sufritzen duen jendearekin egoteak eraldatu egiten gaitu.



Egungo kanpainak, ibilbide horri jarraibidea emanaz, pertsona ahul eta babesgabeenen sufrimendua, mina eta eskubide urraketa gerturatu nahi dizkigu. Gure proposamena zera da:



- **Pertsonekin eta munduarekin beste era batera elkar eragitea**, arreta osoa eskainiz eta entzunez, bihotza zabalik, errealitateak eskatzen digun horri erantzun ahal izateko.

Mundua eraldatzeko deia denongana helarazi nahi dugu, justiziaren alde lan eginez eta berri ona iragarritz. Izan ere, beste pertsona batzuei esker bizi gara. Gizartean elkarrizketa berri bat sortu nahi dugu, norbanakoaren errealitateak, gure asmo onetatik eta proiektu pertsonaletatik harago. Harremanen dinamika berri batean sartu nahi dugu, harreraren oinarrituz.

Beste pertsonen errealitatea jasotzeko modu berri bat behar dugu. Errealitate desberdin horiek mehatxu gisa bizi ditugu sarritan, aukera gisa hartu beharrean. Laguntza emateko bulkada sentitzen dugu, baina, batzuetan, ez gara ohartzen pertsona horri konponbideak eskaini aurretik, bere bizitza eta historia ezagutu behar ditugula.

Horrela, pertsona bakoitzak behar duen txoko berezi eta pertsonal hori eraiki ahal izango dugu, duintasunez bizi ahal izateko. Eta orduan lortuko dugu gure dohainak eta trebetasunak lantzea. Norabide bikoitzeko bideak markatzeko gonbidapena da, beraz, pertsona guztiok justizia eta berdintasun harremanak lantzeko moduan. Harrera egiten duen komunitate fededun gisa aritzeko gonbidapena da. “Zeren harengan bizi baikara eta harengan mugitzen, eta izan ere harengan baikara (Hch 17, 28)”.



Beste pertsoneri harrera egin, entzun, eta egoeraz jabetu ostean, gure buruari galdetu ahal izango diogu zer egin dezakegun mina sortzen duena eraldatzeko, eta gure anai-arrebekin batera ekintza solidarioa burutzea onartuko dugu.

## 2019-2020 KANPAINA INSTITUZIONALAREN HELBURUAK

Helburu orokorrak honakoak dira:

**Munduaren eta pertsonen errealitateari begiratzeko daukagun moduari buruzko hausnarketa sortzea.** Errealitate hori zentzumenen bidez somatzeko gai garen ikustea; gureak ez beste ohitura eta ikuskerak dituzten pertsonen, desberdin sentitzen ditugun pertsonen begiradak gertutik ikustea. Hainbat eremutan aurkitzen ditugun pertsonak izan daitezke: Lanean, boluntario taldean, eskolan, lagunartean, familian, auzoan...





### **Pertsona batzuen bizitzekin hunkitzen ikastea:**

Gure inguruan dauden pertsona baztertu, pobretu, migratzaile, langabe eta abarregandik gertuago sentitzea. Pertsona horiek ikusgai egitea, eta beren bizipenek uki gaitzaten uztea.

**Gure komunitateetan harremanen dimentsioa sendotzea, topaketa eta harreraren bidez.** Gure kristau konpromisoa elikatu eta sustatzen duen espiritualtasuna zaintzea.



## **LELO NAGUSIA: ERDU -TE INVITO**

Ekitaldi honetarako lelo nagusia, ERDU -TE INVITO, gonbidapenaren ideian oinarritzen da. Ideia da gonbidapenaren bidez ez dugula informazio osoa hasieratik ematen; errealitate horretara gerturatu beharra dago. Sentsibiltate berri batekin, zentzumen guztiak jarrita ibiltzeko gonbidapena da, harrera komunitate izateko borondatea sendotuta.

Bost zentzumenak aktibatu behar ditugu, topaketarako prestatu, pobrezia edo bazterkeria goieran dauden pertsonengana modu natural batean gerturatu, eta justiziaren alde lan egin.

- Ikusmena eta entzumena distantziaren zentzumenak dira, urrutitik pertzibitzeko balio dute.
- Usaimena, dastamena eta ukimena gertutasun eta kontaktuarenak dira.

Zentzumenen bidez, errealitatea atzematen dugu, hori ulertzeko dagozkion esanahi eta balioak emanez. Kristau balioak errealitate hori ulertzeko ditugun tresnak dira. Samariarra eta elizgizona bereizten dituen zera da, errealitatea atzemateko modu desberdina dutela. Batzuk pasatu egiten dira, ikusi gabe. Samariarrak ikusten du, entzuten du, eta gerturatzen da.

Frantzisko Aita Santuak pertsoneri begiratzeko eskatzen digu, beren kolorea, jatorria, arraza, erlijioa, adina edozein direla ere. Pertsoneri begiratu, besterik ez, beren osotasunean.



**“Fedearen begiez begiratzea etiketak alde batera uztea da; ez erabakitzea zeinek duen maitasuna jasotzeko besteko duintasuna, baizik eta pertsona guztiok maitasuna izateko baldintzak sortzea, bereziki beren ingurukoek ahaztu dituztela sentitzen duten horiek”.**

Jesusek **belarria** fintzeko eskatzen digu, adi egoteko, bazterkeria egoeran dauden eta eskubideak urratzen zaizkien pertsoneri entzuteko. Munduaren mina ulertzeko eskatzen digu; errealitate hori onartu eta horretaz arduratzeko. Horretarako, jasotzeko prest egon behar dugu. M. Merleau-Pontyk esaten digu arretaz entzuteak bihotza eraldatzen duena, ikuspegi berri bat hartuz.

*“Izan ere, Jesu Kristorenak garenontzat, erdaindua*



Adi egoteko ere eskatzen digu, giza eskubideak urratzen diren egoerak identifikatu eta horien aurrean axolagabe ez agertzeko.

Baina justiziaren alde lan egite horrek beste pertsona batzuen parte-hartzearekin dauka zerikusia. Jesusek komunitatean egiten du lan, lagun arteko sare bat deitzen du eta berarekin joateko eskatzen die.

Urte honetan, komunitate solidario, abegitsu eta inklusiboaren izaera izango da kanpainaren hari eroalea. Eskubideak urratu zaizkien pertsonen bizipen eta prozesuetan laguntzeko gai izango diren komunitateak eraikitzea. Gure errutinei hautsa atera eta berriro ere jaso eta emateko prest egotea.

## HARRERA KOMUNITATEA IZATEA

Zer da komunitate solidario eta abegitsua? Honakoak dira ezaugarriak:<sup>1</sup>

- **PARTEKATZEN DU.** Bere ondasunak PARTEKATZEN DITU eta ekarpen ekonomiko eskuzabalak egiten ditu.
- **ZERBITZUA EMATEN DU.** ZERBITZUA EMATEN DU, bere denbora, esperientzia eta ezagutzak doan emanaz.
- **ALAI ETA ATSEGINA DA.** Bere lan egiteko eta harremanak egiteko moduan. Alai sentitzen da.
- **IKUSGAI DAGO.** Gizarte, herri eta auzoko beste eremu batzuetan ere hor dago.
- **LEHENTASUNEZKO AUKERA.** Pertsona babesgabeenei arreta berezia eskaintzen die.
- **ABEGITSUA DA.** Gozoa eta abegitsua da komunitatera gerturatzen diren pertsona berriekin.
- **INTEGRATZAILEA DA.** Pertsona babesgabeenak ere komunitateko partaide izan daitezen ahalegina egiten du eta erraztasunak ematen ditu.
- **XUMEA DA.** Baliabide eta izateko moduari dagokienez.
- **IKUSPEGI IREKIA DAUKA.** Gauza berri eta aldaketen aurrean egokitzen daki, izateko beste estilo batzuk onartzen ditu eta komunitatea eta errealitatea ulertzen ditu.
- **ADI DAGO.** Adi egoten da eta komunitate barruko zein kanpoko pertsonen beharriaz erantzuten die. Bai bere inguruan, baita urrunagoko errealitateekin ere.
- **Nazareteko Jesusengan errotutako ESPIRITUALTASUNAREKIN.** Hazten eta ospatzen laguntzen digun espiritualtasun sendoa dauka.
- **ERANTZUKIZUNA PARTEKATZEN DU.** Komunitatearen egitekoak banatzen ditu eta pertsona guztiak hartzen dute erantzukizunaren parte bat. Guztiak daukate egiteko bat eta erantzukizun bat.
- **ARDURATSUA.** Bere errealitate soziala hobetzeko lanean parte hartzen du, bere inguruko beste eragile eta erakunde batzuekin batera.
- **ALDARRIKATZAILEA ETA BAKEZALEA DA.** Bidegabekeria salatzen du, bakea helburu.

<sup>1</sup> Conclusiones "Taller 2: Comunidad Solidaria". Goazen 2017

## KANPAINA INSTITUZIONALAREN IBILBIDEA

ERDU TE - INVITO leloaren bidez, lau momentu egongo dira kanpainaren barruan. Ibilbidea kanpainaren aurkezpenarekin hasiko da eta boluntarioen lanaren aitopena eta gonbidapenarekin bukatuko da.



- **IRAILAK 29**  
Kanpaina instituzionalaren aurkezpena, kristau komunitateen abegian eta dimentsio solidarioan zentratua.
- **ABENDUAK 22**  
Gure zentzumenak zorrozteko sentzibilitate berri batean zentratua, gorrotoa eta beldurra sortzen duten aurreiritziak gainditzeko, eta pertsonekin elkar aurkitzeko, jaso eta emateko prest egonik.
- **MARTXOAK 29**  
Komunitatearen garapena sustatzen duen jendea izateko modua, bizitza erdigunean jarriz (ekonomia solidarioa).
- **EKAINAK 14**  
Boluntarioen konpromisoa, ingurua eraldatzeko eman eta jasotzen den dohain gisa.

## KANPAINAREN INSTRUMENTUAK

- Kanpaina instituzionalaren Oinarrien Dokumentua
- Kartelak
- Zuzendariaren gutuna
- Laguntza liturgikoak
- Kanpainaren une bakoitzerako gakoak jasoko dituzten ikus-entzunezko materialak.
- IREKITA argitalpena. Kanpainarekin lotutako hausnarketa artikulua irakurtzeko dinamika barne hartzen ditu (otoitzak, bideoak...).

Kanpainaren unearen arabera, beste tresna osagarri batzuk baloratu daitezke, hala nola erretiroak, bideo-forumak, triptikoak...